Andoaingo Udala

# HERRITARREK ORIA IBAIAREN ERTZAK GARBITZEKO EKIMENA

Hirigintza eta Ingurumen zinegotziak, Jose Luis Verdascok, azpimarratu duenez "sortzen ditugun hondakinak gure gizartearen bizimoduaren adierazle argia direla. Askotan, sortutako hondakinak ez direnez behar bezala kudeatzen, natura-ingurunean pilatzen dira, eta kalte larriak eragiten dituzte. Egoera horren adibide dira Oria ibaiaren ertzak, bertan pilatzen baitira gure herrian sortutako hondakinak, eta kalteak eragiten baitizkie ibaiko izaki bizidunei."

Verdascok jakinarazi du, "arazo honi aurre egiteko eta ikusgarritasuna emateko, Hirigintza eta Ingurumen Sailak azken hilabeteetan antolatzen ari garen ingurumen-sentsibilizazioko jardueren barruan, amaiera gisa, Oria ibaiaren ertzeko herritarren garbiketa-jarduera aurkezten dugu".

Verdascok adierazi du, "garbiketa martxoaren 25ean, larunbatean, egingo da. Parte-hartzaileak Allurralde kiroldegiaren aurrean elkartuko dira goizeko 9:30ean, eta ibaiaren ertza garbituko dute Allurralde kiroldegiaren eta Aita Larramendi ikastolaren artean 2-3 orduz. Ekintzan parte hartzera animatzen diren herritarrei beharrezko materiala (eskularruak eta tresnak) emango dizkiete antolatzaileek. Lanaren amaieran, bildutako hondakinak erakutsiko dira eta parte hartzaile guztiei bazkari goxoa eskainiko zaie, ekintza giro alai eta atseginean amaituz. Parte hartu ahal izateko, aldez aurretik izena eman beharko da 943 670 249 telefonora deituta."

Bestalde, Maider Lainez alkateak nabarmendu du "garrantzitsua da horrelako garbiketa-ekintzetan parte hartzea, ingurumen-sentiberatasun eta kontzientzia handiagoa lortzeko".

Hori dela-eta, "herritar guztiak animatzen ditut parte hartzera eta, bereziki, familian parte hartzera, gure seme-alabek hondakinen kudeaketaren garrantziaz, birziklatzeko beharraz jabetzeko eta aintzat hartzeko gure esku dagoela gure ingurunea zaindu eta babestea" amaitu du Lainezek.

Andoain, 2023ko martxoak 10

# LIMPIEZA CIUDADANA DE LA ORILLA DEL RIO ORIA

El concejal de Urbanismo y Medio Ambiente Jose Luis Verdasco ha destacado que “los residuos que generamos son un claro exponente del estilo de vida de nuestra sociedad. En muchas ocasiones, al no gestionar adecuadamente los residuos generados, se acumulan en el medio natural, causando graves daños. Ejemplo de esta situación es la orilla del río Oria, donde se acumulan los residuos generados en nuestro pueblo, causando daños a los seres vivos del río”.

Verdasco ha informado que “para combatir y dar visibilidad a este problema, dentro de las actividades de sensibilización ambiental que desde el Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente venimos organizando en los últimos meses, como colofón, presentamos la actividad de limpieza ciudadana de la orilla del río Oria”.

Según ha indicado Verdasco, “la actividad de limpieza tendrá lugar el sábado 25 de marzo. Los participantes se reunirán en frente del polideportivo Allurralde a las 9:30 de la mañana y limpiarán el margen del río entre el polideportivo Allurralde y la Ikastola Aita Larramendi durante 2-3 horas. La organización facilitara el material necesario (guantes y herramientas) a los vecinos que se animen a participar en la acción. Al final del trabajo se expondrán los residuos recogidos y se ofrecerá a todos los participantes un delicioso almuerzo, finalizando la acción en un ambiente alegre y agradable. Para poder participar, será necesario inscribirse previamente llamando al 943 670 249”.

Por su parte, la alcaldesa Maider Lainez ha destacado “la importancia de participar en acciones de limpieza como ésta, en aras de adquirir una mayor sensibilización y concienciación ambiental”.

Y es por ello que “anima a toda la ciudadanía a participar y, especialmente, a hacerlo en familia, para que nuestras hijas e hijos tomen conciencia de la importancia de la gestión de los residuos, del reciclaje y de que está en nuestra mano cuidar y proteger nuestro entorno” ha concluido Lainez.

Andoain, 10 de marzo de 2023